



Haurrak izan dira protagonista atzo hasitako Elduaingo amabirjinetan

JAIK ▶ Umorea eta musika izango dira gaur nagusi; gauerako Tolosatik autobusa jarri du Udalak ▶ 6



Kultura zinegotziak bota zuen jai hasierako txupinazoa atzo arratsaldean herriko plazan. INIGO TERRADILLOS



Mendi Federazioak kontrolatu zituen denborak. AIOR ELDUAIEN

Proba prestatzea «ez zaio erraza» egin Iker Karrerari

AMEZKETA ▶ Txindokira 11 aldiz igotzea lortu zuen, nahiz eta bero handia egin; hamasei litro ur edan zituen egunean zehar ▶ 5

TOLOSA ▶

Kirol eskaintza zabala negurako

Kiroldegia eguerdiz zabalik egongo da ▶ 2

TOLOSA ▶

‘Zaharkinak’, ondare etnografikoaren bilduma Ferialekuan

Etxe eta baserrietako 1.000 pieza ikusgai izango dira hilaren 26 arte ▶ 3



LEIRE MONTES

ANOETA ▶

Aldaketak «oso larriak» AHTren proiektuan

Bilera deitu dute astearterako ▶ 4

KIROLA ▶

Ordu gehiago ariketa fisikoari

Udaleko Kirol Departamentuak apustu garbia egin du: aurrerantzean zabalik izango da eguerdiz Berazubi kiroldegia

IRATXE ETXEBESTE

Ikasturtea hastear den bakoitzean helburu berriak jartzen dizkio norberak bere buruari datozten hilabeteak modu egokian eramate aldera. Usadioz egin ohi ditu gizakiak halako proposamenak, eta horietako asko ezerezean geratzen badira ere, batzuk, behintzat, mantendu egiten ditu ekaina bitarte. Kirola da urtez urte jendeak egiten duen aukeratako bat. Ariketa fisikoa egiteak duen garrantziaz oharturik, asko eta asko dira iraillean kirol eskaintzen berri jakin nahian herriko kiroldegira jotzen dutenak.

Horren harira, Udalak handitu egin du 2004-2005 ikasturterako kirol eskaintza, eta, gainera, apustu garbia egin du: aurrerantzean zabalik izango da Berazubi kiroldegia eguerdian ere. Astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 22:00etara izango da urritik ekainera kiroldegia irekita. «herritarrek ariketa fisikoa egin nahi izatekotan leku eta ordu arazorik izan ez dezaten». Orain arte itxita egoten zen Berazubi kiroldegia 12:00ak eta 15:00ak bitartean, eta hain juxtu eguerdi parte hori hautatzen zuten herritar askok kirola egiteko. Udal ordezkariak eta teknikariak Tolosaldeko herritar guztiak eman nahi die aukera ariketa fisikoa egiteko, eta bazkalduan kiroldegia zabaltea erabaki dute horregatik.

Kirol jardueren eskaintza ere handitu egin dute udal arduradunek ikasturte berrirako, eta orain arte jendearen aldetik erantzun zabalago jaso dutenak bere horretan mantenduz, beste hainbat indartu egingo dituzte: pilatesa, kasu. Duela hilabete gutxi hasi ziren

herrian gimnastika modu berezi hori lantzen, eta pixkanaka-pixkanaka jarraitzaile gehiago ditu kirol horrek. «Gorputz osasuntsua izateko eta lesioak azkar sendatzeko aukera ematen du pilatesak. Ariketa bereziak eginez, norberak bere gorputza kontrolatzen ikasten du», esan du Karnele Begiristain, pilates ikastaroaren arduradunak. Burua eta gorputza batean hartzen ditu kirol horrek, eta giharreen oreka eta armonia bermatzen du.

«Erregularitasunez gimnastika modu hori praktikatzeko dutenek gorputzaren posturak hobetzen dituzte, hobeto mugitzen dira, hobeto egiten dute lo eta gorputza indartzea lortzen dute». Hori uste dute adituek. Berez eragin handia duen kirola dela, eta bestelako terapia edo ariketarik behar ez duela dio Begiristainek pilatesari buruz galdetuta, «gorputza eta arima osasuntsu mantentzeko bidean eraginkorra baita oso».

Adin guztietarako

Gimnastikako teknika hori edonork egiteko modukoa da Begiristainen hitzetan. «Haurrek eta helduek egin dezakete, eta lesioaren bat dutenek ez ezik, batere minik ez dutenek ere bai». Pilatesaren arduradunak dio gimnastika tradizionala ez, eta berritzailea dela, «mugimendua uneoro kontrolatzea bideratzen duelako».

Hala ere, ohiko kirolak nahia go dituenak ere badu non aukeratu. Ikasturte berrirako Berazubi kiroldegian eta Igarondo igerilekuan eskaintzen dituzten ikastaroen berri eman godo dute datozten egunetan bi leku horietan. Aerobika, taichia, judoa... askotariko kirol jarduerak egin ahal izango dira Berazubin, eta fitnessa hautatzen dutenek abantaila izango dute aurten, eguerdian eta arratsaldez begirale aditu batek aholkuak emango dizkiolako, hala nahi duenari, egin beharreko ariketen inguruan.

Igeriketa ikastaroak ere makina bat izango dira ikasturte berrian, eta Igarondo igerilekuko arduradunek adierazi dute haurrei eta helduei zuzendutako eskolen ordutegi zabalagoa egituratu dutela, igerian ikasi edo hobetu nahi duenak mugarik izan ez dezan.



Igeriketa ikastaroak antolatu dituzte iraileko bigarren hamabostaldirako 3 eta 5 urte artekoentzat. HITZA

ARGIBIDEAK ▶

Tolosako Udaleko Kirol Departamentuak eskaintza bereziak jarri ditu abian Igarondo igerilekuan eta Berazubi kiroldegian ikasturte berrirako. Hona hemen horietako garrantzitsuenak:

ESKAINNTZA

▶ Igarondo igerilekuan.

Helduak. Hilabete, hiruhilabete eta urte osoko igeriketa ikastaroak eskaintzen dituzte Igarondo igerilekuan. Hilabeteoari dagokionean, egunero izango dira eskolak 09:00etatik 09:50era eta 15:00etatik 15:50era. Hiruhilabeteoak 2 eguneko egingo dute, astelehenetan eta asteazkenetan, urriaren 4tik abenduaren 22ra 19:15etik 22:00etara. Urte osoko ikastaroa ere bi egunetan izango da, astearte eta ostegunetan, 19:15etik 20:00etara.

3-5 urtekoak. Iraileko bigarren hamabostaldirako Uda Kanpaina Igeriketa antolatu dute Igarondoko arduradunek 3 eta 5 urte bitarteko haurrentzat. Bi talde egingo dituzte izena ematen dutenen artean, eta eskolak 17:30etik 18:00etara eta 18:00etatik 18:30era izango dira. Izena

eman daiteke hilaren 6tik 17ra, eta matrikulatu nahi duten guztiak dago lekua.

Ikastetxe igeriketa kanpaina. Goizez, 09:00etatik 12:40era eta arratsalde, 15:00etatik 15:40era eskaintzen dituzte Igarondoko ikastetxeetako umei zuzendutako igeriketa ikastaroak. Bestalde, ikastaro heziketa bereziak ere badira: 16:30etik 17:10era.

▶ Berazubi kiroldegian.

Gorputz mantenimendua. Helduentzat asteartetan eta ostegunetan prestatu dituzte eskolak 09:00ak eta 10:30ak bitartean eta 19:30ak eta 20:30ak artean. Hirugarren adinekoek, aldiz, 11:00etatik 12:00etara joan beharko dute bi egun horietan eta Atzegikoei zuzendutako ikastaroak astelehenetan emango dituzte, izango da, astearte eta ostegunetan, 19:15etik 20:00etara.

Bestelako kirolak. Judoa, taichia, pilates, aerobika, psikomotritizitatea, fitness... Kirol horien inguruko argibideak Berazubin bertan ematen dituzte bertako arduradunek.

Jolasak. Tenis eta badminton jolasak ere eskaintzen dituzte kiroldegian eguerdian; asteazken eta ostiraletan, 13:30etik 14:30era.

BERRIKUNTZAK

▶ Eguerdian, zabalik.

Berazubi kiroldegia zabaldua edukiko dute aurrerantzean eguerdian (12:00etatik 15:00etara). Hala, ordutegi berria izango du kiroldegia: 09:00etatik 22:00etara irekita egongo da egunero, astelehenetik ostiralera, urria eta ekaina bitarte.

▶ Tenisa eta badmintona.

Asteazkenetan eta ostiraletan tenis eta badminton eskaintza ateratzeko asmoa dute Berazubin 15-18 urte bitarteko ikasleentzat edo helduentzat.

▶ Begiralea.

Eguerdian eta arratsaldean begirale bat izango da fitness gelan hala nahi duenari aholkuak emateko.

▶ Pilatesa, goraka. Pilates eskaintza indartze aldera, eskaintza handiagotu egingo dute Berazubi kiroldegian; duela hilabete gutxi jarri zuten kirol hori abian, eta arrakasta lortzen ari da.

▶ Haurren igeriketa.

3 eta 5 urte artekoentzat igeriketa ikastaroak antolatuko dituzte Igarondoko. Udan bezala, zozketa bidez egingo da izen-ematea, eta ez iritsitako ordenaren arabera. Lekua guztiak izatea nahi dute.

ARAMBURU
Salgai (Tolosa). Pisu Gorosabel 40ean. Ganbara eta garajearekin.
Salgai (Tolosa). Baju komertzialak Beldate eta Nagusia kalean.
Alokatzeko (Amezketeta). 3 logela eta altzariak dituen pisua herriko plazan.
Alokatzeko (Tolosa). Lokal komertziala Errementari kalean. Pizzeria edo txokolategia jartzeko egokia.
Alokatzeko (Tolosa). Bulegoa Korreo kalean 1.pisua igogailuarekin.
Alokatzeko (Tolosa). 145m²-ko bulegoa Larramendi kalean.
Alokatzeko (Irura). Garajeak Mikel Goi Aingeru enparantzan.
Alokatzeko (Tolosa). Garaje irekiak Larramendi eta Araba Etorbideak.

943 65 17 13 / 677 46 09 16

ERAKUSKETA ▶

Ondare etnografikoa jasotzen eta ezagutzera ematen

'Zaharkinak' erakusketa inauguratuko dute gaur Ferialekuan; hilaren 26a arte, eskualdeko etxe eta baserrietan bildutako 1.000 pieza inguru izango dira ikusgai

LEIRE MONTES

Izkutukoa agerian jartzeko, ondare etnografikoari dagokion garrantzia emateko eta jendea-ri ezagutarazteko asmoarekin jaio zen *Zaharkinak* proiektua. Eta xede berekin jarraitzen du aurrera, Gipuzkoako herri batetik bestera, Aranzadi zientzia elkarteak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako asmoak. Oraingo honetan Tolosak jasoko du lekukoa: gaur hasita eta hilaren 26a arte, *Zaharkinak* erakusketa hartuko, Ferialekuan. Fermin Leizaola Aranzadi kidea eta *Zaharkinak*-en arduradunak, Imanol Agote Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura zuzendariak, Jon Bildarratz Tolosako alkateak eta Andoni Iturzaeta Kultura zinegotziak eman zuten atzo proiektuaren eta erakusketaren berri.

1992. urtean hasi ziren Gipuzkoako Foru Aldundia eta Aranzadi zientzia elkarteak Etnografia saila, Gipuzkoako udalekin batera, *Zaharkinak* zikloko erakusketak antolatzen. «Askotan izkutirik dagoen ondare aberatsa agerian jartzea, ondare etnografikoari dagokion garrantzia ematea eta herriarrei ezagutaraztea» izan ziren hasierako helburuak, eta gaur egun ere «indarrean» jarraitzen dute. Oraingo, hamaazpi edizio egin dituzte proiektuak zerbait herritan.

Agoteren esanetan, «dagoen arazoei erantzuna ematen saiatzen da *Zaharkinak* proiektua. Ez dago gure ondarea zaintzeko eta mantentzeko lan egingo duen Etnografia Museorik. Gainera, ondare etnografikoa ez da publikoa, norbana koena baizik; hortaz, eragin handia du jabeek mantentzeko eta ezagutzera emateko zein jarraera duten. Gainera, espolioazioaren arriskua ere badago. Horri guztiari aurre egin nahi dio ekimen honek». Hain zuzen ere, ondarea identifikatzea, zaharberritzea eta jendea sentzibilizatzea du xede proiektuak.

Tolosako erakusketarako, teknikari taldeak makina bat etxe eta baserri bisitatu ditu, eta 1.000 pieza inguru bildu. «Prozesu azkarra izan dadin saiateren gara, bizpahiru hila- betekoa. Izan ere, jabeek ez di-



Ezkerretik eskuinera, Iturzaeta, Bildarratz, Leizaola eta Agote, atzoko aurkezpenean. LEIRE MONTES

'ZAHARKINAK' ERAKUSKETA ▶

NOIZ

▶ Gaurtik hilaren 26a arte.

NON

▶ Ferialekuan.

INAUGURAZIOA

▶ Gaur, 12:30ean.

ORDUTEGIA*

▶ 11:00etatik 13:00etara eta 17:30etik 20:30era.
▶ Ordu-tegi bera eguneroko.

ANTOLATZAILEAK

▶ Gipuzkoako Foru Aldundia, Aranzadi zientzia elkarteak eta Tolosako Udala.

tuzte tresnak ematen, utzi egiten dituzte aldi baterako», azaldu zuen Fermin Leizaolak. Pieza guztiak zenbakitu, fitxatu eta erakusgai izateko prestatu egiten dira ondoren; erakusketan ere gaika sailkatu egiten dira objektuak.

«Kultura materialeko gauzak biltzen dituen erakusketa honerik herri honetako produkzio sare anitzaren ezaugarriak bildu nahi ditu. Hartara, baserrietan lurra lantzeko nahiz abeltzaintzarako erabilitako tresnerekin batera, erabili ohi diren altzariak ere ikus daitezke». Besteak beste, zepoak, gurdiak, ikatz plantxak, kutxak, aulkiak, trabesak, argazkiak, liburuak eta dokumentuak izango dira ikusgai *Zaharkinak* erakusketan.

Antolatzaileen esanetan, To-

losa are aberasgarriagoa da: alde batetik, landa-auzoak eta baserri-giroak hiriarekin nahastean sortzen dena ikusteko; eta, bestetik, uholdeek tresnerian izan duen eraginaz jabetzeko.

«Zalantzarik ez dugu edizio berri orok gure kultur ondasuna aberasten duela. Eta ziklo honen baitan egin diren erakusketak asko diren arren, urte urte harrizten gaitu *Zaharkinak* gure baserrietan jaso eta gordetako ondare etnografiko garrantzitsuarekin». Orain arte bildutako tresneriaren 24.000 fitxako artxiboa osatu dute.

Belaunaldiz belaunaldi

«25-30 urteko epean memoria historikoa galtzen da. Jendea-

rekin zuzenean egin behar da lan, haiekin hitz egin aurrez aurre. Arkeologian objektua dugu soilik; baina etnologian jendearekin egiten dugu lan, objektuari buruz xehetasun guztiak kontatuko dizkigutena. Tresna horiek balio handia dute gaur egun, baina oraindik handiagoa izango dute urteak aurrera egin ahal», adierazi zuen Leizaolak.

Haren esanetan, «erakusketaren aurretik eta ondoren jendeak pieza horiekiko duen jarraera aldatu egiten da, eta hori oso berri pozgarria da. Gure ondarea oso garrantzitsua dela eta objektu hauek urtetik urtera bizirik jarraitu behar dutela sinisteko eta sentitzeko hezi behar ditugu belaunaldi berriak».

«Espero dugu Tolosako edizioak ere aurreko urtetakoen arrakasta bera izatea, eta herriarrei gerturatu eta ezagutaraziko dizkiela gure hurbileko historiaren lekuko diren eta gure kulturarako zati garrantzitsua izan den bizimoldearen berri ematen duten elementu hauek guztiak».

Gaur zabalduko ditu atek *Zaharkinak* erakusketak, 12:30ean, Ferialekuan. Hilaren 26a arte, goizez eta arratsalde, izango da herriko ondarea aurrez aurre ikusteko aukera.

HEZKUNTZA ▶

Etzi, ikasturte hasiera Udala Musika Eskolan

Eduardo Mokoroa Udala Musika Eskolako ordezkariak 2004-2005 ikasturteko klaseak astelehenean hasiko dira jakinarazi nahi diete ikasleei.

KULTURA ▶

'Tolosako bordondantzaren ikuspegitik' salgai

Ekainaren bukaeran aurkeztu zuten Jose Maria Jimeno Jurio idazle nafarraren *Tolosako bordondantzaren ikuspegitik* liburua, Jose Mari Gorrotxategiren argazkiekin. Une hartan lana argitaratu gabe zegoen oraindik. Datorren astetik aurrera, ordea, salgai egongo dela jakinarazi du Aranzadi zientzia elkarteak. Herriko liburutandean erosi ahal izango da, 25 euro-tan.

GERTAKARIAK ▶

Ustezko iruzurra futbol txapelketa aitzakitzat

Tolosako Udaltzaingoa jakinarazi duenez, uda aurretik 60 urte inguruko gizon ezezagun bat herriko hainbat enpresatan diru eske aritu zen, Txalaparta kultur eta kirol elkartearen izenean, udan haurrentzako eta gaztetxokentzako futbol txapelketa antolatzeko. Horieta enpresa batzuek dirua eman zioten; baina uda honetan inongo futbol txapelketarik izan ez denez, iruzur baten aurrean daudela konturatu dira. Agian Eguberrietako oporrei begira antzeko zerbait egiten saiatu daitezkeen, Tolosaldeko enpresa, taberna eta dendak jakinararen gainean utzi nahi ditu Udaltzaingoa.

MUSIKA ▶

Santa Mariako abesbatzaren entsegua

Datorren asteartean, hilaren 7a, Santa Mariako abesbatza eta orkestra entseatzeko hasiko dira berriro, betiko orduan, parrokian bertan. Hilaren 12an, gainera, 11:00etako meza nagusian ariko dira, Izaskungo ermitan.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoetaidea. Medikua: 65 23 39
Asteasu. Medikua: 69 24 23
Berastegi-Elduain. 68 33 61
Bidegoian. Medikua: 68 11 34
Ibarraldea. Osasun eib.: 672411
Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Lizartza. Medikua: 68 20 77
Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
 ▶ Gernikako arbola: 00 69 00
 ▶ Asunzio klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
 ▶ DYA: 67 25 36
 ▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
 ▶ Ertzaintza: 53 88 20

Villabona-Aiztondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
 ▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
 ▶ Taxia: 67 04 20
 ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06
 ▶ Arramele-AEK: 67 12 14
 ▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIA

Gaur. Quetglas M.A. Euskal Herria 46 (Ibarra). Telf.: 943 67 32 74
 Plaza, M. Elbarren 36 (Leitza) 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
 tolosaldeko_public@tolosaldeko-hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aizt. 687 41 00 22.

villabona_aiztondo@tolosaldeko-hitza.info

Anoetaidea. 687 41 00 22

anoetaidea@tolosaldeko-hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

Leitzaldea. 687 41 01 18.

leitzaldea@tolosaldeko-hitza.info

ANOETA ▶ INGURUMENA

AHTren proiektuan aldaketak direla eta, batzarra deitu dute

Proiektuaren inguruko azken berriak «oso larriak» direla azaldu du plataformak; batzarra asteartean izango da

GARAZI AZKUE

Anoetako AHT Gelditu! Elkarlanak batzarra deitu du datorren astearteko. Bilera honetan, orain arte egindakoari errepa-soa emango diote elkarlaneko kideek eta bertara biltzen direnek. Bestetik, Anoetan, AHT proiektuaren inguruko azken berriak azalduko dituzte elkarteratzean; eta azkenik, aurrera begira zer egin zehaztuko dute. Bilera asteartean izango da, 19:00etan udaletxean.

Anoetako AHT Gelditu! Elkarlanak komunikabide honi helarazi dionez, «proiektuaren inguruko azken berriak oso larriak dira. Gasteizko eta Madrildgo gobernuak egitasmoa-reakin aurrera doaz, eta Gipuz-



Gain-Berri inguruko irudia. HITZA

koan obrak aurten hasiko direla adierazi dute».

Anoetari dagokionez, Anoeta AHT Gelditu! Elkarlanean taldearen esanetan, «eskura iritsi zaizkigun planoen arabera, trazatua 50 metro inguru herri-rago egin nahi dute. Hori horre-

la, Gain-Berri etxea botako luke».

Baina taldearen ustez, ez da hau trazatua aldaketaren ondorio bakarra, «trenbidearen bi aldetan, 250 metroko tartean, zarata arazo larriak jasan-goa dira».

Hondakindegien afera ere aztertuko dute astearteko batzarrean; izan ere, «Anoetan bi tunel zulatu beharko dira eta ateratako soberakinak herriak kokatuko dira: Isastin bata (561.972 m3) eta Larratzen bestea (706.531 m3)», plataformaren esanetan.

Eta azkenik, 5 metroko zabalera izango duten larrialdiko hainbat bide berri eraikiko dituztela ere gaineratu du Anoetako herritarrek osatutako taldeak.

ZIZURKIL ▶ KULTURA

Festen baitan marrazki lehiaketa jarri dute abian herriko haurrentzat

Irailaren 7a baino lehen aukeztu beharko dira lanak liburutegian

G. AZKUE

Elbarrenako festak direla eta, marrazki lehiaketa jarri dute aurten ere abian. Hamabi urte bitarteko haurrentzat dago zuzenduta, eta lau taldetan banatu-ko dituzte parte hartzaileak adinaren arabera.

Marrazkiak liburutegian ba-

natzen diren kartulinetan egin beharko dira, eta irailaren 7a baino lehen utzi beharko dira liburutegian bertan.

Eskuz egindako marrazkiak onartuko dira lehiaketan. Lanaren atzean, egilearen datuak jarriko dituzte, izen-abizenak, helbidea, adina eta telefonoa zehaztuta.

Lanak aurreztu ostean, epai-mahaia aukeratuko ditu irabazleak eta sari banaketa auzeratzeko lanen artean, irailaren 10ean egingo dute Joxe Arregi plazan, 13:30ean.

Sari banaketaren ondoren, lehiaketan parte hartu duten marrazkien erakusketa jarriko da Joxe Arregi plazan.

ANOETA ▶

Erromerira irteera antolatzeko bilera

Anoetako Udalak, usadio zaharrari jarraituz, Ernio erromerira irteera antolatuko du. Irailako hirugarren igandean egingo dute anoetarrek mendira, hilaren 19an hain zuzen ere. Aurreko urteetan bezala, aurten ere, ikastolak parte hartuko du antolaketa lanetan. Irteera hau antolatzeko bilera, irailaren 8an izango da, 19:30ean udaletxean bilduko dira herritar-rrak.

ANOETA ▶

Liburutegia astelehenean irekiko dute

Oporraldien ostean herriko liburutegia irekiko dute berri-ze ere ikasle eta gainerako herritarrentzat. Astelehene-tik aurrera, ohiko ordutegian joateko aukera izango dute anoetarrek. Astelehene-tik ostiralera 17:30etik 19:30era egongo dira irekita liburutegiko ateak. Internet zerbitzua erabili nahi dutenek, berriz, 16:00etatik 19:30era izango dute aukera.

VILLABONA ▶

Endika Abril txapelketako partidak bihar

Bihar izango dira Endika Abril errebote txapelketako hurrengo partidak Villabonako Errebote plazan. Abuztuan hasi ziren lehen partidak, eta hurrengo saioa bihar izango da. 9:00etan, Sarako Izarra, Luzean (Donibane Lohitzune) taldearen aurka arituko da Villabonako plazan. 11:00etan, berriz, Behar-Zana herritarrek, Har-doitarrak taldearen aurka lehiatuko da.

zuhatzki
Egurrezko leihoak, kontraleihoak, ateak eta eskailerak neurria

JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ

Tel.: 943 67 36 11 • Faxa: 943 67 36 55
 "Cuatro vientos" Industrialdea, 1
 Txarama auzoa • 20491 Leaburu

AITZOL
UDAL EUSKALTEGIA

Gorosabel, 34 - B
 20400 TOLOSAN
 Tel.: 943 65 10 06 - 943 65 23 43
 Fax 943 65 12 44
 E-mail:
 aitzolue@tolosakoudala.net

MATRIKULA ZABALIK**Euskara zure neurria**

Euskalduntzen-alfabetatzen-EGA
 hizkuntz eskakizunak- HABEren mailen
 azterketak euskaltegian bertan...

Klase presentzialak; euskaltegian, enpresatan,
 ikastetxetan, zure lantokian...

Klase ez presentzialak (autoikaskuntza)
 zuk erabaki non eta noiz

AMEZKETA ▶ KIROLA

Probarako prestaketa «gogorra» izan zela azaldu du Karrerak

Beroa nabarmenago egin zen eguna argitzearekin batera; 16:00ak aldera berrogeitahamabi gradu egiten zituen



Iker Karrera eta Luis Mari Larreta, tontorrean; 2001ean azken hori hamasei ordutan sei aldiz igo zen Txindokira. AITOR ELDUAIEN

OLAIA ESKITXABEL

Iker Karrera amezketarrak hogeitalau orduz Larraitzetik Txindoki mendira joan-eto-rrian aritzeko asmoa jaso genuen oporren aurretiko HITZA-ko azken alean. Emaizta ezaguna da: uztailaren 31n 00:00etan hasi eta 22:55ak bitarte 11 aldiz igo zuen tontorra (1.341 m.) Karrerak.

Lehenengo igoera berrogeita sei minututan egin zuen; gaua zen oraindik, baina «tontorrean beheran adina gradu zeudela somatu nuen», azaldu du Iker Karrerak. Hogeita bost gradu inguru zeuden. Eguna argitzearekin batera, beroa nabarmenago egin zen, gainera: «16:00ak aldera tontorrean berrogeita hamabi gradu egiten zituela esan zidan Andu Martinezek, epaileetako batek», dio

Karrerak. Izan ere, egun osoan zehar epaileak egon ziren tontorrean eta Larraitzen amezketarraren proba homologatzera begira. Proba egin zuenetik hilabete pasa ondoren, eskertza hitzak izan ditu Karrerak: «Mendi federazioko kideei, lagunei eta ingurukoei eskainitako laguntza eskertu nahiko nieke».

Erronka pertsonala

Luis Mari Larreta amezketarrak hamasei ordutan sei aldiz igo zuen Txindokiko tontorra; 2001eko ekainaren 23an izan zen hori. Orduz geroztik buruan izan zuen Karrerak antzeko proba bat egiteko asmoa: «Ez da erraza izan probarako prestaketa; mendian ordu asko egin behar dira eta entrenamenduak esfortzu handia su-

KRONOLOGIA ▶

IGOERAK

00:00-13:00. Larraitzetik Txindokira zortzi itzuli egin zituen. Ordu eta erdi inguruan egin zuen lehen sei itzulietako bakoitza. Tontorrean nahiz Larraitzen bost hamar minutuko geldialdia egiten zuen jateko eta edateko.

13:30-19:30. Denbora tarte horretan bederatzigarren eta hamargarren itzuliak egin zituen Karrera amezketarrak. Itzuli zailenak izan ziren.

20:15-22:55. Hamaikagarren eta azken itzulia burutu zuen. Botaka egin ondoren, indartsu aurkitzen zen, baina ordubetean beste itzuli bat egiteko denborarik ez zuenez bere horretan utzi zuen.

posatzen du. Egindakoarekin gustura, baina «hainbesteko beroa egingo ez balu, hamabigarren igoera egiterik izango nuke», azaldu du amezketarrak. Horretaz gain, «egindakoa erronka pertsonala dela tarteko apusturik ez antzekorik ez dagoela», argitu nahi izan du.

Jarritako helburuak bete dituela azaldu du: «Aurreko markak hobetzea eta ahalik eta markarik onena jartzea lortu baitut». Hala ere, probako eguna gogoratzean egindako markaz baino gehiago «lagunekin eta ingurukoekin pasatako eguna» du gogoan Iker Karrerak.



Txapeldun, Antiguon

PILOTA ▶ Pasa den igandean, abuztuaren 29an, jokatu ziren Antiguoko pilota txapelketako finalak; aurreko postuetan eskualdeko pilotari ugari ikus zitezkeen. Jubeniletan, Renobales eta Koldo Galarraga izan ziren txapeldunak. Olazabalen eta Beteluren aurka 17-10 galtzen joan arren, partidari buelta eman eta 22-21 irabaztea lortu zuten Aurrera-Saiaz taldeko pilotariek; talde bereko Beloso eta Garmendia laugarren postuan sailkatu ziren hogeitabi urtez azpikoetan. Postu bera eskuratu zuten nagusien mailan Zazpi-Iturri taldeko Baez anaiek. HITZA

AMEZKETA ▶ PILOTA

Azken final-laurdenetako partidak, gaur gauean

Pilotariek finalerdietarako azken txartelak lortzeko saiakera egingo dute

O. ESKITXABEL

Pasa den asteazkenean, irailaren 1ean, jokatu ziren XV. Joxean Tolosa txapelketako lehenengo finala-laurdetako partidak.

Gaur arte hiruna partida jokatu dira egunero; kadeteak,

gazteak eta nagusiak finalerdietarako txartelak lortzeko norgehiagokan aritu dira. Gaur, final-laurdenetako azken partidak jokatu dira 22:00etan hasita. Legarretak, Goikoetxeak, Axpek, Galarztzak, Baez I.ak eta Arrutik jokatu dute.

EMAITZAK ▶

ASTEAZKENA (IRAILAK 1)

Kadeteak. Ibarra 12 / Jauregi 18.
Gazteak. Elurbe 9 / Mitxelena 18.
Nagusiak. Beloso 18 / Elizalde 7.

OSTEGUNA (IRAILAK 2)

Kadeteak. Iragi 18 / Andreu 16.
Gazteak. Renobales 18 / Plkabea 5.
Nagusiak. Baez II. 8 / Retegi 18.

www.tolosaldeko-hitza.info

▶ sar zaitetz eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albistek, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

inkestako galdera berria:

Gogorra egiten al zaitzu ikasturte hasiera



BAI ▶ EZ ▶ ARRAZOITU ZERGATIK ▶

IBARRA ▶ KIROLAK



Aldaketa batzuk jasan ditu aurtengo areto-futbol taldeak pasa den urtekoarekin gonbaratuz. IÑIGO TERRADILLOS

Ibarra areto-futbol taldekoak hasi dira lanean berriro

Cesar Roca entrenatzaile berriak taldea indartzeko lanetan dihardu; aurrendenboraldian maila ona ari da ematen taldea

IÑIGO TERRADILLOS

Ibarra areto-futbol taldea, mailaz jeitsi ondoren, hasi da berriro ere lanean; pasa den denboraldian izandako arazo ekonomikoen ondorioz zilarrezko mailan jokatzeko zuten Aker Ibarra maila bat beheragoko ligan jokatzera behartu du bere burua, lehen maila A kategorian arituko delarik. Maila honetan Donostiako UPVrekin neurtuko dira eta honetaz gain Bizkaia, Araba, Nafarroa, Errioxa eta Cantabriako taldeak ere izango dituzte aurrez aurre.

Mailaz jeitea, ordea, ez da izan Ibarra-koentzat aldaketa bakarra; pasa den denboraldian taldeko entrenatzaile izandako Juanan Rodriguez Castro Urdiales taldea entrenatzena pasatu da. Jokalarien artean ere izan da aldaketarik: Montxi, bi brasildarrek, Felipek eta Lek, eta Bautisek taldea utzi dute. Lehengo bien kasuan, zilarrezko mailan jarraituko dute Lizarrako Perfiles Sintal talde-

ak fitxatu ondoren. Entrenatzaile berria, berriz, orain arte bigarren entrenatzailearen lana egin duen Cesar Roca Tolosarra izango da

Helburu nagusiak

Datorren denboraldiari begira, galdutako maila berreskuratzea izango du helburu taldeak. Eta bestalde, egoera ekonomikoa hobetzea bilatu nahi da, horretarako beste urte batez Ibarra-ko Udalaren diru laguntzarekin kontaktuko dutelarik.

Aipatu behar da baita ere, klub ezberdinak elkartu direla Gipuzkoan areto-futbola zuzpertzeko helburuarekin. Maila ezberdinetako Gipuzkoako taldeek elkarte bat osatu dute guztien artean batak besteari lagunduz lan egiteko. Horrela, talde desberdinetako jokalariek elkarteko beste talde batera pasatzea erraztuko du elkarrekin honek besteak beste. Gainera, behe behetik hastea da proiektu honen helburua, hau

da, ikastoletatik gaztetxoekin gogor lan eginez.

Aurrendenboraldian

Irailaren 11an emango zaio hasiera denboraldi berriari baina Ibarra-koak abuztuaren hasi zirentrenaldiekin eta aurrendenboraldiko partidekin.

Pasa den abuztuaren 26an jokatu zuten Ibarra-ko aurrendenboraldiko lehen partida etxean; Lizarrako Perfiles Sintal taldea izan zuen aurrez aurre eta 6-4 ko emaitzarekin irabazi zuten etxekoek maila ona erakutsiz. Igande honetan, irailak bost eguerdiko hamabietan Donostiako Bidebieta kiroldegian izango dute hurrengoa Ibarra-koek Donostiako UPV-ren aurka.

Taldea indarberritzen dihardu oraindik Cesar Roca entrenatzaile berriak eta funtsezkoak izango dira aurrendenboraldiko partida hauek, jokalariek mailarik onena erakutsi beharko dutelarik.

ELDUAIN ▶ JAIK

Umorea eta musika nagusi gaur egitarauan

Autobusa antolatu du Udalak Tolosatik gauean Elduaingo festetara joateko



Txupinazoarekin batera kalejiran abiatu ziren gaztetxoak. I.TERRADILLOS

I.TERRADILLOS

Ohiko txupinazoarekin eman zieten hasiera, atzo arratsaldeko laurak eta erdietan Ama Birjinaren omenezko jaiei Elduainen. Ordurako gogotsu ziren zain gaztetxoek herriko plazan beraientzako festa hauetan ekitaldi ugari baitzeuzkaten prestaturik. Mari Jose Karrera kultur zinegotzia izan jaiei hasiera ofiziala ematearen arduraduna, bera izan baitzen suzuria jaurtiki zuena.

Txupinazoaren ostean, herriaren zehar abiatu ziren kalejira, gerturatu ziren guztiak. Gauean herri afaria izan zen Kontzejun bederatzia eta erdietan.

Hamarretan, berriz, herri afari alternatiboa antolatu zuten herriko plataformak Urdelak biltokian; Estanga anai-arreba trikitaliriek alaitu zituzten bertaratu ziren 65 lagunak.

Gaur ere izango da zertaz gozatu Elduainen adin guztientzat zuzenduriko egitaraua baitago. Arratsaldeko bostetan haurrentzat zuzendurik Zirika Zirkus ikuskizuna izango da.

Zazpitan, berriz, goseak asetzeko sagardo dastaketa izango da txistorra eta gaztarekin gerturatzen diren guztientzat.

Indarberritu eta gero XXXV. Toka Txapelketa egingo da

irabazleek sari politak eskuratu ahaliko dituztelarik.

Autobusa Tolosatik

Afalostean umorea eta musika gozatzeko aukera izango da. Gainera, bertara joateko autobusa antolatu du Udalak Tolosako ohiko puntuetatik; gaueko hamaiketan aterako da autobusa Elduainera eta Tolosara bueltan goizaldeko lauretan abiatuko da berriz.

Iraola eta Pagadik jarriko diote umore puntua; beraien imitazio eta txisteekin irribarrak eta algarak izango dira nagusi plazan. Baina, ez da hemen amaituko gaurkoa, goizalderarte luzatuko baita festa. Hamabietatik aurrera musika izango da protagonista Elduaingo plazan David DJ aren Disko Festarekin gozatzeko aukera izango delarik.

EGITARAUA ▶

GAUR

17:00. Zirika Zirkus haur ikuskizuna plazan.

19:00. Sagardo dastaketa txistorra eta gaztarekin.

20:00. XXXV. Toka Txapelketa.

23:00. Iraola eta Pagadi txiste kontalariak.

24:00. David DJ Disko Festa.

HITZA, egunero zure etxean jaso nahi baduzu deitu

943 30 43 46

Edozein keza, iradokizun edo kezka argitzeko ere bai



HEZKUNTZA ▶

Ikasturte berriari ekitekotan!

Aresoko eta Leitzako eskoletako pasabide eta geletan irakasleak, langileak, ... dabilta joan-etorrian hurrengo ekaina bitarteko eginbeharrak prestatzen

JAIONE ASTIBIA

Ikasturte berriari ekitekotan, hurrengo astean hasiko dira, ostegunean. Leitzan eta Areson ere martxa bera jarraituko dute. Baina egun hauetan eskoletako ateak irekita daude eta bada mugimendurik, izan ere irakasleentzat ikasturtea hasita baitago.

Hirza Leitzan eta Aresoko eskoletara hurbildu da, hauek hobeki ezagutzeko asmoz eta ikasturte hasierako prestakizun hauen berri bertatik jaso ahal izateko.

Lehendabizikoz, Aresoko eskolan izan gara eta aurten lanean bertan ariko diren hiru irakasleak hantxe ziren: Mikel Illarregi, zuzendari izanen dena, Marta Lopez de Muniain eta Sara Herranz. Aurten 17 ikasle izanen dituzte, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza-koak denak, izan ere LHko 6. maila arte erakusten dute hemen. Baina guztiak ere hiru geletan banatuko dira, maila desberdinetako ikasleak elkarrekin arituz: Haur Hezkuntzako hirurak eta 1. go mailako bi ikasleak batean, Martarekin; 2. mailako hirurak eta 3. mailako bostak, Sararekin, bestean; eta 4. mailako bakarra, 5. mailako biak eta 6. mailako bakarra, Mikalekin, bestean. Aisa oharatu daitekeenez, Aresokoa eskola ttikiak da eta ondorioz ohikogoa diren eskolekiko antolakuntza desberdina du. Aipatutako irakasle hauez gain, ingelesa, soinketa, musika, erlijioa ematera, «espezialistak» etorriko

dira, Leitzako Erleta eskolatik eta azken gaierako, Betelutik. Hau dela kausa, beti beste bi eskola horiekin koordinatzen behartuta daude Aresokoak, irakasle hauek bi herrietan egin behar baitute lana. Eta honen ematen dizkie buruhauste

handienak eskola hasi aurreko egun hauetan: ordutegia antolatzeak. Horretan ari dira orain, eta gero ikasturte osorako programa prestatzen dihardute, hirurek, talde lan hestuan.

Leitzako Erleta eskolan ere, horretantxe ari direla harrapa-

tu ditugu, baina desberdin. Hemen 21 irakasle ariko dira lanean, 188 ikasleekin. Bakoitza bere gela txukundu eta ikasturterako materiala prestatzen ari da, programazioak... Zuzendaritza taldea, Heleni Zabaleta, Sagrario Lasartek eta Ro-

sario Ormazabalek osatzen dute eta ordutegiak egitez gain, autobusak, jangela... ikasturte hasierako prestakuntzetan ari dira.

Irakasleez gain, garbitzaileak, eta biak hala bietan obretako langileak ere hantxe ari ziren lanean: batzu hautsak garbitu eta besteak hautsak harrotu; edo hobeki esan, aldeantantz! Esan ohi den bezala, betiko martxa berrian.

Areson, ikasle batzuen bisita izan dutelako berria ere jaso dugu. Hasteko gogoz daude!

HELENI ZABALETA ▶ LEITZAKO ERLETA ESKOLAKO ZUZENDARIA

«Gizarteko zati garen heinean, bertakoekin harremanak lotuz goaz»

Irakaskuntzan daramatzen 28 urtetan, Belauntzan, Donostian eta azken 8 urte hauetan Leitzan bertan ari da, Heleni.

Esperientzia berria da zuzendari izatea?

Bai. Lehen ere, lanean aritu izan naizen beste bi ikastetxetan zuzendaritza taldean egotea egokitu zitzaidan, baina ez zuzendari. Hala ere, zuzendaritza taldean, horixe, talde lana eginen dugu: eskolan, akademikoki, gestioan, antolakuntzan ariko gara eta talde moduan eginen dugu, ez karguen arabera.

Egitasmo berririk bai?

Orain arte martxan zeuden proiektuekin jarraitu behar dugu, barneko koordinazioa sendotuz eta eskola komunitateko uzta guztiak, irakasle, ikasle, guraso eta eskolaz kanpoko erakundeekin ere harreman hestutuz joan: haurtzain-



J. ASTIBIA

degia, Okille tailerra, liburutegia... Alegia, eskola gizartearen barnean dagoen heinean, hango eragileekin harreman hestutuz joan.

Denbora asko beharko duzue horretarako?

Irakasle gara, tutore gainera, beraz orain arte bezala jarraituko dugu. Zuzendaritzarako ordu batzuk ditugu. Dena den, gogoz hasi gara, urduritasun puntu bat badugun arren, lan arlo berria delako. ◀

MIKEL ILLARREGI ▶ ARESOKO ESKOLAKO ZUZENDARIA

«Eskola ttikiak bizirik mantendu behar dira, herriek iraun dezaten»

Mikel Illarregi 23 urte daramatza irakaskuntzan. Aurten, Areson ariko da.

Eskola ttikiaren batean egona zinen lehenagotik, ezta?

Bai, Saldisekoan aritu naiz azken lau urte hauetan. Sei ikasleko eskolan. Aurten 3 besterik ez dira gelditu. Hala ere irekita mantenduko da.

Alderik egonen da, bada, beste eskolekiko.

Oso desberdinak dira, antolakuntza aldetik batez ere. Balia bide aldetik eta ongi hornituta egon arren, handiekiko menpekotasuna dute: beti besterik egiteko moduak bilatu behar dira, ateraldiak direla, espezialisten ordutegiak direla... **Dena den, harremanak estuagoak izanen dira.**

Normalean bai. Hemengo kasua ez dut oraindik ezagutzen, baina alde onak eta txarrak ditu. Lehengo herrian ikasitakoarekin, azkenean familia ttiki moduko bat osatzen da, nahiko itxia nire ustez. Hemen aukera gehiago izanen dira zabalago ibiltzeko, ikasle gehiago ere badi dira eta.



J. ASTIBIA

Bestalde, zein da herrietan eskolak izatearen papera?

Oso, oso garrantzitsua da herri ttikiarentariko umeentzat eskolak bertan izatea. Beste oinarriko zerbitzuekin batera, mekua, denda bat... ezinbestekoa da bertakoek herritik kanpora joateko beharrik ez izatea. Bizitzeko, herria bere ezaugarriekin mantentzeko...

Egitasmo bereziren bat baduzue ikasturte berriko?

Aurrena eskola ezagutu behar dugu, hirurak berriak baikara. Kokatu eta ikasleak ezagutu ondoren, proiektuak egiteko eta gogoia badugu, herria ere bizitasuna bai baitago eta, animo eta ilusio handia dago. ◀

GIZARTEA ▶

Aralarko santutegira erromesaldia antolatu dute biharko zonaldetik

Larraungo Artziprestazgoaren baitan dauden 40 parroketako eliztarrak joanen dira

J. ASTIBIA

Larraun, Basaburu, Imotz, Araitz, Leitzaran eta Urumea bailaretako 40 parroketako

eliztarrek, urtero Aralarreko santutegira antolatu ohi duten erromesaldia bihar burutuko dute, 11:00etatik aurrera. Bertan parte hartu nahi duenak,

Aralarko guardetxera joatea besterik ez omen du, jakitera eman dutenez. Eguerdian penitentzia ospakizunak eta meza entzuteko aukera izanen omen da santutegian bertan.

Handik aurrera berriz, igandea igarotzeko aukera polita izan daiteke, bertako ostatuan otordutxoak egitea ere, egun horretarako irekiko dutela adierazi baitute antolatzaileek berriak. Hori bai, han kafea banatuko omen dute nahi duen guztiarentzat, bazkaria norberak eraman behar badu ere.

Andoainen dagoen enpresa batean lan egiteko
ADMINISTRATZAILEA behar da (erref. Admin)

Eskaerak da:

- Enpresa Zientzietako diploma izatea edo L.H. II-ko titulua, administrazio arlokoa.
- Kontabilitate arloa ongi ezagutzea.
- Programa informatikoak erabiltzen jakitea (EXCEL, ACCESS...).
- Administrazio lanetan gutxienez 2 urteko esperientzia izatea.
- Harremanetarako gaitasuna edukitzea.

Eskaerak da:

Enpresa talde sendo batean administrazio buruaren ardurapean lan egitea. Administrazio eremuan lan egiteko aukera: kontabilitatea, zergak, barne ikuskaritza... Interesa dutenek gaur egungo curriculum a bidali, argazkiarekin, **gizabaliabideak@jarduna.net** helbide elektronikora, edo beste helbide honetara, erreferentzia zehazturik, irailaren 16a baino lehen.

Helbidea: JARDUNA SL Giza Baliabideak • Gudarien Etorbidea • 20140 Andoain

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Anoeta. Biharko Kostako Itzulia berrindulaz antolatuta de Peña Abrahamek. Irteera 9:00etan izango da.

Lizartza. Gosaria Gaztetxean, 9:00etan; kalejira, 10:00etan; ume jolasak eta txokolatada, plazan, 16:30ean; sagardo dastaketa, 19:00etan; manifa plazatik *Euskal preso eta iheslari politikoak exera!* lelopean, 24:00etan; ondoren, Izoa Pilarren ilobak eta De Marras, Gaztetxean.

ERAKUSKETAK

Tolosa. Miren Gonzalez Goikoetxearen *Puzzleak* pintura erakusketak. Urriaren 9 arte, Aranburu Jauregian.

Tolosa. Zaharkinak. Gaur, 12:30ean, inaugurazioa, Ferialekuan. Hilaren 26a arte bertan ikusgai.

JAIAK

Elduain. Zirika zirkus haurrentzat, 17:00etan, plazan; sagardo dastaketa, 19:00etan; ondoren, XXXV. Toka Txapelketa; 23:00etan, Iraola eta Pagadi txiste kontalariak; eta 24:00etan, David DJ Disko Festa. Autobusa Tolosatik 23:00etan eta 4:00etan itzuliko da.

KIROLA

Futbola.
▶ Tolosa-Aloña Mendi. 18:30, Berazubi. Gorengoen maila.

ZINEMA

Tolosa. *Yo, robot.* 19:30ean eta 22:30ean, Leidor zineman. Bihar, 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean.

Italiatik eta Norvegiatik

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶ Hauexek dira gure irakurleek bidalitako lehendabiziko argazkiak; oraindik garaiz zaudete, bidali oporretako irudiak!



DOLOMITAK ▶

Mirari Astiz (Leitza).

Leitzatik Italiara egin du bidaia Mirari Astiz nafarrak. Dolomita mendien edertasunak liluratu du:

«Misurina izeneko lakua ageri da argazkian. 1.758 metroko altuera du laku horrek, eta Dolomitetan dago, Italiako iparraldean».



NORVEGIA ▶

Ion Garmendia (Ibarra).

Ion Garmendia ibartarrak argazki polit hau bidali digu Norvegiatik. Halaxe azaltzen du oporretan bitzitakoa:

«Iepa! Ion Garmendia naiz, Ibartatik. Norvegia aldean izan gara kontzertu batzuk ematen, eta tarte libre batean... Kontuan izan harritzar horretatik behera, 600 metroko erorketa libre dagoela!!».

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Gaur aitonen urtebetetze eguna eta bihar Ikerrek 3 urte. Zorionak eta muxu handi bana etbekeen partetik.



URTE ASKOAN
Nerea Diaz Melero (Tolosa). Bihar 5 urte. Zorionak eta ondo pasa, aitonen partetik.

HITZA, zorion agurren tartea
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behea - **TOLOSA**
Udaletxeko bulegoa - **LEITZA**
Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri.
Mila esker!